



117 urte
años de

**Nekazari Ganberak
Cámaras Agrarias
en Euskadi_n**



117 urte
años de

Nekazari Ganberak
Cámaras Agrarias
en **Euskadi**_n

Argitzailea Edita

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 . 01010 Vitoria-Gasteiz

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Lehenengo edizioa Primera edición

2009ko otsaila - febrero 2009

Ale-kopurua Tirada

1.500 ale - 1.500 ejemplares

Izenburua Título

117 urte Nekazari Ganberak Euskadin
117 años de Cámaras Agrarias en Euskadi

Argazkiak Fotografías

Archivo Argazki, M. Arrazola, Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco
Archivo Cámaras Agrarias de Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco
Archivo Foral de Bizkaia
Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz
Archivo Provincial Histórico de Álava
Biblioteca Foral de Bizkaia
Fondo Felipe Manterola Funtsa
enza
Fundación Sancho El Sabio

Testuak Textos

enza

Itzulpena Traducción

IVAPeko Itzultzaile zerbitzu ofiziala
Servicio oficial de traductores IVAP

Gainbegiraketa eta koordinazio exekutiboa**Coordinación ejecutiva y supervisión**

Belén Alonso Fernández de Garayalde
Iñaki Aldekoagarai Labaka

Testuen gainbegiraketa Supervisión de textos

Silvia Arroyo
Luis Javier Tellería

**Sorkuntza, errealizazioa, kontzeptu grafikoa,
maketasioa eta diseinua****Creación, realización, concepto gráfico,
maquetación y diseño**

© enza

Imprimaketa Impresión

RGM, S.A.
Polígono Igeltzera, Pab. 1 Bis - 48610 Urduliz-Bizkaia

ISBN ISBN

978-84-457-2886-4

Lege gordailua Depósito legal

BI-816-2009



117 urte
años de

Nekazari Ganberak
Cámaras Agrarias
en **Euskadi**




NEKAZARITZA, ARRANTZA
ETA ELIKADURA SAILA

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,
PESCA Y ALIMENTACIÓN

Eusko Jaurlaritza Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009



Argitalpen honek gure iraganik berritsuena jorratzeko ikuspegi hurbil eta berria eskaintzen du. Nekazaritza eta abeltzaintzaren araberako ikuspegia da eta, honela, nolabait, gure landa-munduarekiko zorra kitatzen da, horren inguruan biratu baitu, beste ezeren inguruan baino gehiago, Euskadiko azken 120 urteetako historia. Liburu honek epealdi honetan zeharko ibilbide liluragarria egiten du Nekazari Ganberen historiaren eskutik. Ikerketa-lan sakon baina arras ulergarriaren ondorio den lan bat du irakurleak eskuetan, arreta handiz aurkeztutako dokumentu zein funts grafikoaren inguruko ikerketa-lana, alegia. Bere baitan itxitako lana izan nahi ez duen argitalpena, jakina, eta lehen eta azken helburu gisa, euskal nekazaritzaren historia berria osatuko duten ikerketa-ildo berri eta aberasgarriak mahai gainean jartzeari dionez.

1890. urtean, Euskadiko aberastasun nagusia zen nekazaritza, baina landa-eremutik alde egiten hasi zen jendea okerrago ordaindutako lanen bila, hala Ameriketara nola industria-eremu hurbil eta hiritarragoetara. XX. mende osoan zehar areagotzen den joera da honakoa. Eta ba al dago lehen sektorea eta bere Nekazari Ganberak baino hobierik errealitate hau aztertu eta ulertzeko?. Euskadiko Nekazari Ganberak lehen nekazaritza-elkarteak dira eta hauetan gure ingurunearen aro garaikideak dituen hiru maximak gauzatzen dira, hots: askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna. Horien bitartez, klase-kontzientzia bereganatzen dute nekazariak, arazo eta erronka berberak dituen taldea osatu eta bere helburuak lortzeko elkartu egin behar direlako kontzientzia, hain zuzen. Beren 117 urteko historian zehar, nekazaritza-sindikatuena egin behar izan dute epealdi askotan eta nekazari eta Administrazioaren arteko komunikazio-lotura izan dira beti.

XXI. mende hasieran, gutxi izan arren, badira hirietatik landa-eremura itzultzen hasi direnak, bertan, zalantzarik gabe, ingurumenaren aldetik hobekien kontserbatutako eremuak baitaude. Datu honek etorkizunerako joera ezar dezake, izan ere, horrela gertatu da beste herrialde batzuetan. Horretarako, ezinbestekoa izan da alde zuzenetik natur guneak babestu edo bertako arte- eta kultura-ondare zahar-zaharraren balioa nabarmendu izana. Honela, landa-ingurune bizi berriek lasaitasuna, tratu hurbila, etengabeko kutsadura, zarata eta auto-ikararik eza bezalako balioetan oinarritutako bizi-kalitate hobea txalotzen dute. Azken batez, etxeko ate eta leihoetatik naturaz gozatzeko aukera, antzina-antzinatik ekoizteko moduaren eta Herriaren zaintzaren arteko etengabeko oreka bizi eta gozatzeko duen kultura bati esker.

Liburu hau historian zehar Euskadiko Nekazari Ganberetan esku hartuz lan egin duten pertsona guztiei eskainita dago (1890-2007).

Gonzalo Sáenz de Samaniego, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura saiburua.

Esta publicación ofrece un cercano y novedoso enfoque desde el que abordar nuestro pasado más reciente. Un enfoque desde la agricultura y la ganadería y se salda así, en cierta manera, una deuda con nuestro mundo rural, sobre el que no podemos olvidar ha pivotado, como sobre ningún otro, la historia de los últimos 120 años en Euskadi. Este libro recorre este periodo, sin duda apasionante, a través de la historia de las Cámaras Agrarias. Está en manos del lector una obra tras la que hay una esmerada pero muy accesible labor de investigación, tanto de documentos como de fondos gráficos, presentados de forma cuidada. Una publicación que desde luego no pretende ser una obra cerrada en sí misma y que busca, como primera y última intención, poner encima de la mesa nuevas y enriquecedoras vías de investigación que completen la reciente historia del agro vasco.

En 1890, la agricultura constituía la principal riqueza de Euskadi, pero se inició un abandono del campo en busca de trabajos mejor remunerados, bien en América o en las zonas industriales más cercanas y urbanas. Una tendencia que se acentúa a lo largo de todo el siglo XX. ¿Y qué mejor lugar que el sector primario y sus Cámaras Agrarias para acercarse, estudiar y comprender esta realidad?. Las Cámaras Agrarias Vascas conforman las primeras asociaciones agrarias donde cristalizan las tres máximas con las que se abre la era contemporánea en nuestro entorno: libertad, igualdad y fraternidad. A través de ellas los agricultores adquieren conciencia de clase, conciencia de que forman un grupo con los mismos problemas y retos, y que deben unirse para conseguir sus objetivos. En sus 117 años de historia estas entidades han asumido las funciones de los sindicatos agrarios en muchos periodos y han sido instrumento clave de comunicación entre agricultores y la Administración siempre.

A principios del s.XXI comienza un tímido pero significativo regreso de una parte de la población de las ciudades al campo, al mundo rural, donde sin lugar a dudas se encuentran las zonas medioambientalmente mejor conservadas. Este dato puede marcar una tendencia de futuro como ha ocurrido en otros países. Para ello ha resultado fundamental la protección previa de espacios naturales o poner en valor el antiquísimo patrimonio artístico y cultural. Así, los nuevos habitantes rurales aplauden la mayor calidad de vida plasmada en valores como la tranquilidad, la cercanía en el trato, la ausencia continua de contaminación, ruidos, atascos... La posibilidad en definitiva de disfrutar de la naturaleza desde la puerta y la ventana de sus casas gracias a una cultura que vive y disfruta desde tiempo inmemorial del equilibrio permanente entre la forma de producir y el cuidado del País.

Este libro está dedicado a todas las personas que a lo largo de la historia han trabajado formando parte de las Cámaras Agrarias Vascas (1890-2007).

Gonzalo Sáenz de Samaniego, Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación.





Euskal nekazaritza garaikidearen aldaketa

Bereziki aberasgarria da Euskadiren azken 117 urteetan barrena bidaiatzea, hiru menderen artean, memoriari nekazaritzaren txokotik begiratuta, bertako landa-mundutik. Ibilbideak lau belaunaldi hartzen ditu bere baitan: gure birraitona-amonengandik hasita XIX. mendearen amaieran, nekazaritza aberastasun-iturri nagusia eta ia bakarra zenean, gugana, euren birbilobengana heldu arte, XXI. mendearen hasieran, garai teknologikoaren goraldian.

Euskadiko Nekazari Ganberak 1890ean sortu eta 2007an desagertu ziren, eta denbora horretan guztian, euren araudiaren eta jardueraren bidez ekarpenak egin dituzte, abeltzainen eta nekazarien eskubideak defendatzeko sortu ziren lehenengo elkarteak baitira.

Hasieran, sortu zirenean, Nekazari Ganberak sindikatuen lekua zeukaten (oraindik ez zegoen sindikaturik), eta nekazarien eta abeltzainen bermatzaileak ziren Administrazioaren aurrean. Ganbera horiek horrenbeste garrantzi izan zuten, lehen sektoreko langileek klase sozial gisa zuten errealitatearen kontzientzia hartu zuten. Garai hartan nahasmena zegoen erakunde publiko horien eta profesionalen elkarteen ahalmenen artean. Hala, harrigarria izanik ere, Nekazari Ganberak sindikatu izena hartu zuten 1906tik 1919ra (1919an profesionalen elkarte horietatik argi eta garbi bereizi ziren behin betiko). Urte hartan, gainera, derrigorrez sortu behar izan zen Nekazari Ganbera bat hiru lurralde historikoetako bakoitzaren hiriburuan -neurri hori indarrean egon zen ia 90 urtez- eta derrigorrez parte hartu behar zuten bertan landako, abeltzaintzako, elkarteetako eta sindikatuetakoz zergadunek.

Geroago, Bigarren Errepublikaren sasoian, Euskadiko Nekazari Ganberak oinarrizko erakunde bilakatu ziren organo publikoen eta nekazari zein abeltzainen arteko bitartekaritzan. Horretaz gain, bazeuzkaten beste funtzio batzuk ere: sektorekoen hezkuntza sustatzea, aurrezki kutzak sortzea, makinen alokairuak ezartzea, haziak saltzea, landako izurriteen aurkako borrokak koordinatzea, edo landa-bizitzaren hobekuntzan laguntzeko ekimenak eta lanak bultzatzea. Frankismoaren garaian, Ganberak Nekazari Ganbera Sindikal Ofizialak izena hartu zuten eta lehen sektorearen politikaren funtsezko organo bihurtu ziren. Demokrazia itzuli zenean eta Euskadiko bigarren Autonomia Estatutua indarrean jarri zenean, erakunde publiko horiek funtzioak galdu zituzten, batez ere sindikatuen bultzadarengatik eta nekazarien arteko asoziazionismoarengatik, eta, azkenik, 2007an desagertu egin ziren.

La transformación de la agricultura contemporánea vasca

Viajar por los últimos 117 años de Euskadi, a lo largo de tres siglos, mirando el territorio de la memoria desde la ventana de la agricultura, desde su mundo rural, resulta especialmente enriquecedor. Un recorrido que abarca cuatro generaciones, desde nuestros bisabuelos a finales del siglo XIX, donde la agricultura era la principal y casi única riqueza, hasta nosotros, sus biznietos, situados en plena ebullición de la era tecnológica a principios del siglo XXI. Pues bien, durante todo este tiempo, las Cámaras Agrarias Vascas, coincidiendo con su nacimiento en 1890 hasta su disolución en 2007, muestran desde su normativa y actividad la aportación de las primeras asociaciones constituidas con el fin de defender los derechos de agricultores y ganaderos.

Al principio, en su fundación, las Cámaras Agrarias ocupaban el mismo espacio que los sindicatos -que todavía no existían- y eran las garantes ante la Administración de agricultores y ganaderos. La importancia de estas primeras Cámaras era tal que gracias a ellas, los trabajadores del sector primario adquirieron sobre el papel conciencia de su realidad como clase social. Unos años donde se daba una confusión entre los poderes de estas corporaciones públicas y los de las asociaciones de profesionales. Así, sorprendentemente, las Cámaras Agrarias pasaron a denominarse sindicatos desde 1906 hasta 1919, cuando ya se diferenciaron clara y definitivamente de estas asociaciones de profesionales. Este año fue precisamente obligatoria la constitución de una Cámara Agraria en la capital de cada uno de los tres Territorios Históricos -medida que se mantuvo durante casi 90 años- así como la pertenencia a ella de los contribuyentes de rústica, ganadería, asociaciones y sindicatos.

Posteriormente, durante la Segunda República, las Cámaras Agrarias Vascas se asientan como instituciones básicas en la intermediación entre los órganos públicos y los propios agricultores y ganaderos, además de mantener otras importantes funciones como promover la educación sobre el sector, fundar cajas de ahorros, establecer arriendos de máquinas, venta de semillas, coordinar la lucha contra plagas del campo, o promover iniciativas y trabajos que contribuyan a la mejora de la vida rural. Durante el franquismo, estas Cámaras pasaron a denominarse Cámaras Oficiales Sindicales Agrarias y se convirtieron en órganos fundamentales de la política del sector primario. Unas corporaciones públicas que con el regreso de la democracia y el segundo Estatuto de Autonomía de Euskadi fueron perdiendo funciones, debido principalmente al fuerte empuje de sindicatos y del asociacionismo agrario, hasta su disolución en diciembre de 2007.

pág. **10**
orrialde



Distrito de Durango.

Los Pueblos Contadores año 1876 Contadores año 1906

1890 - 1906

Euskadiko lehenengo Nekazari Ganberak
Las primeras Cámaras Agrarias Vascas

1907 - 1939



Nekazari Ganberen sendotzea



El asentamiento de
las Cámaras Agrarias

pág. **42**
orrialde





pág. **74**
orrialde



pág. **104**
orrialde

1940 - 1974

Nekazari Ganbera
Sindikal Ofizialak

Las Cámaras Oficiales
Sindicales Agrarias



1975 - 2007

Azken Nekazari
Ganberak

Las últimas
Cámaras Agrarias





Euskadiko lehenengo Nekazari Ganberak

1890 - 1906

Las primeras Cámaras Agrarias Vascas



Antzinako landa-mundua

El mundo rural y antiguo

Nekazarien antzinako mundu hark bizirik dirau gaur egun, hein handi batean, mendez mende eta belaunaldiz belaunaldi etenik gabe ahoz azaldu diren kondairei esker. Neguko suaren epeletan entziklopedia mardul gisa azal dutako kondaira horietan aurkikuntzak kontatzen dira, irakaspemoralak ematen dira eta entretenitu egiten da arreta erakartzeko eta ezagupenak ezartzeko. Horren adibide dugu Jose Migel Barandiaranek Gipuzkoako Ataun herrian bildutako ipuina. Bertan, zerealen jatorria azaltzen da. Ipuinean basoko eta zuhaitzetako jainkoen eta gari-uztaren arteko harremana antzeman daiteke:

Garai batean, Basajaunak Muskia kobazuloan bizi ziren, Ataundik gertu: mendi-gailurren inguruko lurak lantzen zituzten eta gari ugari biltzen zuten. Beheko lurretan kristauak bizi ziren, eta artean ez zuten garirik ereiten hazirik ez zeukatelako. Behin, San Martintxiki, abarka handi-handiak jantzita, Muskia kobazulora igo zen. Gari-piloak ikusita apustua egin zien Basajaunei, ea nork egiten zuen jauzi ondoen piloan gainerik.

Basajaunek, noski, trebetasun handiz egin zuten jauzi, baina San Martintxiki gari-piloaren erdian erori zen eta abarkak gari-alez bete zitzaizkion. Oinetakoak beteta mendian behera abiatu zen San Martintxiki poz-pozik, eta orduan ohartu zen Basajaun bat abarka haiek handiegia zirela jauzi egiteko eta San Martintxiki ziria sartu zela. Haserre, Basajaunak aizkora hartu eta jaurti egin zion, baina ez zuen San Martintxiki jo. Aizkora Olasagastiko gaztainondo baten enborrharen beheko aldean sartu zen.

La visión de aquel mundo antiguo de los agricultores pervive hoy, en parte, gracias a las historias transmitidas oralmente de generación en generación, ininterrumpidamente, durante siglos. En estas historias contadas al calor del fuego invernal, a modo de gran enciclopedia, se explican descubrimientos, se alecciona moralmente y se entretiene para mantener la atención y fijar los conocimientos. Como en este cuento recogido por José Miguel de Barandiarán en la localidad gipuzkoana de Ataun sobre el origen de los cereales. En él se ve la estrecha relación de las divinidades del bosque y de los árboles con la cosecha del trigo:

“Hubo un tiempo en que los ‘Basajaunes’-gigantes mitológicos- vivieron en la cueva de Muskia, cercana a Ataun: cultivaban las tierras próximas a las cumbres de las montañas y recogían grandes cantidades de trigo. En el terreno bajo vivían los cristianos y todavía no sembraban trigo por faltarles la semilla. Una vez, San Martintxiki, habiéndose calzado unas botas muy grandes, subió a la cueva de Muskia, y viendo allí los montones de trigo hizo una apuesta con los ‘Basajaunes’ a ver quién los saltaba más airosoamente.

En efecto, los Basajaunes los saltaron con una agilidad pasmosa, pero San Martintxiki cayó en medio del montón de trigo y se le llenaron de granos las botas. Cuando ya se iba tan contento ladera abajo, un ‘Basajaun’ se acordó que San Martintxiki llevaba unas botas demasiado grandes para saltar y cayó en el engaño del que habían sido objeto. Enfadado cogió un hacha y se la lanzó, mas no le alcanzó. El hacha se metió en la base del tronco de un castaño de Olasagasti.



Baserritarrak XX. mendearen hasieran Arratiako bailara bizkaitarrean laiatzen. · Baserritarras layando a principios del siglo XX en el valle de Arratia, Bizkaia.



Laiari-taldeak maldan zehar jartzen dira: lehenengo, taldekiderik indartsuena jartzen da, ondoren hurrengo indartsuena, eta horrela elkarren segidan azkenera heldu arte.

El grupos de layadores se forma con su miembro más fuerte situado en la parte baja de la ladera, luego el siguiente más fuerte, y así sucesivamente hasta el último.

Hala ere, kristauak oraindik ez zekiten garia zer sasoitan erein, eta uztak ez ziren ernetzen. Halako batean, baina, kristau batek honakoa entzun zion Basajaun bati barreka:

*'Orri irtete, arto ereitte,
orri erote, gari ereitte,
Sanlorentxota, arbi ereitte'.*

Ordutik, garia Euskal Herriko herri guztietan zabaldu zen.

Modernizazioa nekazaritzara iritsi aurretik, lurra prestatzen zenetik uzta biltzen zenera arte, gizon-emakumeek lanaldi luzeak egin behar izaten zituzten. Lan horien adibide nabarmena gariaren uzta da, ziklo luzea baitu. Horri begirata, argi ikusten da mekanizazioak nekazaritzan eta abeltzaintzan zer garrantzi izan duen. Garia azaroan ereiten hasten ziren eta abuztuan biltzen zuten. Ziklo luzea zen, eta horregatik, Arabako iparraldean eta Bizkaia eta Gipuzkoa ia osoan artoaren alde egin zuten, artoa Ameriketatik iritsi eta gero; izan ere, artoaren uzta azkarragoa zen -maiatzetik azarora- eta emaitza hobeak zituen, lurraldeotako klima hezeagoa zela-eta.

Pero los cristianos seguían sin saber en qué época sembrar el trigo, y las cosechas no terminaban de germinar. Hasta que un cristiano en una ocasión escuchó a un 'Basajaun' que riéndose a carcajadas decía:

*'¡Ja,ja, jaa! Si supieran ya lo harían:
Al salir la hoja siémbrese el maíz,
al caer la hoja siémbrese el trigo
y por San Lorenzo siémbrese el nabo'.*

Y desde entonces se difundió el trigo por todos los pueblos de Euskadi".

Antes de la llegada de la modernización a la agricultura, desde que se preparaba la tierra hasta la recolección de los productos, los hombres y mujeres debían emplear largas jornadas de trabajo. Como ejemplo de estos trabajos, el más apropiado por su ciclo largo y su cultivo necesario es la cosecha del trigo. Claro exponente para comprender la importancia que ha tenido la mecanización en la agricultura y la ganadería. El trigo se comenzaba a sembrar en noviembre para recogerlo en agosto. Un ciclo amplio, de ahí que en la parte norte de Álava y en casi toda Bizkaia y Gipuzkoa se decidiesen por el maíz después de su llegada desde América, tanto por su mayor rapidez en la cosecha -de mayo a noviembre- como por sus mejores resultados, debido al clima más húmedo de estas zonas.



Lehenengo eta behin, lursailik aldapatsuenetan lurra goldatzen edo laiatzen zuten, urriaren amaieran edo azaroaren hasieran. Laiatzen hasi aurretik, sail osoan marra arin batzuk egiten ziren behi- edo idi-pareak tiratutako barra edo laban berezi baten bidez. Ondoren, hiru edo lau gizon-emakume, laiak eskuetan hartuta, lerroan jartzen ziren egindako marren artean: laiak aldi berean altxatzen zituzten eta indarrez erortzen uzten zituzten. Gainean oina jarrita, laia 30 edo 40 zentimetro sartzen zuten lurtean, eta lurra harrotu eta irauli egiten zuten. Hori egiten zuten bakoitzean mokil edo zokor luzeak ateratzen zituzten, 'zeta' izenekoak. Atzetik beste pertsona-lerro bat zetorren aitzurrekin mokil handiak txikitzen.

La primera operación consistía en arar o layar la tierra en los terrenos más empinados. Se realizaba a finales de octubre o primeros de noviembre. Antes de empezar a layar, se practicaban en toda la heredad unas rayas ligeras por medio de una barra o cuchillo especial tirado por una yunta de vacas o bueyes. Luego, puestos en fila entre las líneas trazadas tres o cuatro hombres y mujeres con una laya en cada mano, las levantaban a un tiempo dejándolas caer con violencia. Apoyando un pie, metían la laya en la tierra entre 30 y 40 centímetros, la levantaban, la volteaban y dejaban caer en cada vuelco unos largos terrones como trozos de césped, denominados 'zetas' en euskera. Detrás venía otra fila de personas que desmenuzaba con sus azadas estos grandes terrones.

Baserritarren arteko batek, zaharrena usu, akuiluaren laguntzaz, idiak ildoetatik gidatzen ditu, hurrengo uztaren ahalik eta plangintzarik hobereena eginez.

Uno de los baserritarras, tradicionalmente el más veterano, ayudado por el 'akullu', guía a los bueyes por los surcos planificando de la mejor manera posible la futura cosecha.



Laiatzea oso gogorra zen eta eskulan handia behar zuen; ondorioz, hainbat etxetako bizilagunak elkartzen ziren normalean zeregin horretarako. Lursail lauagoetan goldea erabiltzen zen, animaliek tiratuta, eraginkorra goa eta erosoagoa zelako eta jende gutxiago behar zelako zeregin horretarako.

Lurra goldatu edo laiatu ostean, area pasatzen zen saila lautzeko, eta erein egiten zen, bai purraka, bai zuloetan. Zuloak elkarrengandik 28 zentimetrora egoten ziren, eta bakoitzean 8 edo 10 ale jartzen ziren lur emankorretan eta 12 edo 14 lur normaletan. Zuloaren barruan, hazia karez estaltzen zen sendotu zedin, edo ur egosiz bustitzen zen azkarrago erne zedin. Azkenik, berriro pasatzen zen area mokilak txikitzeko eta haziak estalita uzteko.

La operación de layar era muy dura y necesitaba mucha mano de obra. Normalmente, se reunían vecinos de varias casas para esta labor. En los terrenos más llanos se utilizaba el arado tirado por tracción animal debido a su mayor eficacia, comodidad y porque se necesitaba menos gente para esta tarea.

Una vez arado o layado el terreno, se pasaba una plataforma de púas para alisarlo y se sembraba bien a voleo o en hoyos. En cada hoyo, separado 28 centímetros -una tercia-, se depositaban 8 o 10 granos si el terreno era fértil, y 12 o 14 en terrenos normales. Dentro de la cesta, la simiente se enharinaba con cal para fortalecerla o se mojaba con agua hervida para acelerar la germinación. Y finalmente se volvía a pasar la plataforma de púas para que se desmenuzasen los terrones y así quedase escondido el grano.



Behi-bikotea baserri bakoitzeko ondasunik preziatuentzat jotzen da. Beraiek arduratzen baitira indarririk handiena eskatzen duten lanetaz.

La pareja de vacas se considera el bien más preciado en cada caserío. Ellas se encargan de las tareas más hercúleas.

Erein eta handik hiru hilabetera, otsailean, berriro pasatzen zen golde laua, garia erneta zegoenean, eta ondoren abereen simaurra zabaltzen zen karez nahastuta. Martxo eta apiril artean jorra hasten zen. 20 edo 30 bat emakume eta ume ilaran jartzen ziren eta kirten luzeko aitzur txikiekin belar txarrak ateratzen zituzten. Ekainaren amaieran berriro garbitu behar izaten ziren galsoroak eskuz belar gaiztoak kentzeko. Jorratzea, laiatzea bezala, lan gogorra zen, eskulan handia behar baitzen.

*“Ankak ariñak eta
burub’ariñago,
dantzan obeto daki
arto jorran baño.*

A los tres meses de la siembra, por febrero, se volvía a pasar el arado plano ya con el trigo germinado y se esparcía el estiércol animal envuelto con cal. Ya entre marzo y abril, comenzaban las labores de escarda realizadas por filas de entre 20 y 30 mujeres y algunos niños que con sus azadillas de mango largo -'horraras'- iban arrancando las malas hierbas. Y otra vez a finales de junio era necesario limpiar los trigales a mano de las malas hierbas. Estas operaciones de escarda resultaban costosas, como las del layado, por el gran número de mano de obra necesaria.

*“Ankak ariñak eta
burub’ariñago,
dantzan obeto daki
arto jorran baño.*

*Arto jotarra nua
luberrri berrira
belarra jorratu ta
artua sasira.”*

Gipuzkoan dauden dantzarako kantarik ederrenetakoa. Jorrari buruzkoa da, artajorrari buruzkoa zehazki, baina gariari buruz ere abesten da eta nesken abestitzat jotzen da.

Pueblos del Norte, Julio Caro Baroja.

Garia heltzen zenean moztu egiten zen eta, sortatan bilduta eta galburua gorantz, pilotan jartzen zen zenbait egunez eguzkiaren beroarekin erabat lehortu zedin. Uzta behar baino lehenago mozten bazen, lastoa eta garaua alferrik galtzen ziren, busti egiten baitziren eta ez ziren guztiz sikatzen.

Gipuzkoan eta Bizkaian garia kodainaz mozten zen, batez ere lekurik menditsuenetan, eta Euskadiko beste lekuetan igitaiaz. Hori bera gertatzen zen larrinetan gari-jotzean; aurretik, baina, soro guztietako garia larrinetara eramaten zen. Araba hegoaldean idiek edo zaldiek tiratutako trailua erabiltzen zen, askoz merkeagoa baitzen, eta leku menditsuagoetan irabiurra erabiltzen zuten. Makil bik osatzen zuten, gorostikoak normalean, luzetara bost oin zutenak. Biak muturrik meheenean lotuta zeuden, eta hala, makiletako baten mutur lodiena hartuta, bestea aske zebilen airean dantzan gari-sortak gogor astinduz. Horrela, aleak erori egiten ziren kolpeen ondorioz. Garia jotzeko modu horretan ere, laiatzean eta jorran bezala, beso ugari behar ziren lanerako.

*Arto jotarra nua
luberrri berrira
belarra jorratu ta
artua sasira.”*

(Las piernas ligeras/ y la cabeza más ligera aún/ mejor sabe bailar/ que escardar el maíz.

Voy a escardar el maíz/ al campo nuevo/ escardo las hierbas/ y el maíz tiro a las zarzas).

Uno de los cantos de bailes más bellos y de sabor más primitivo de los que existen en Gipuzkoa que alude a la escarda, en este caso del maíz, pero cantada también en el trigo, como propia de las muchachas.
Pueblos del Norte, Julio Caro Baroja.

Cuando el trigo estaba maduro, se segaba y se colocaban los manojos con la espiga hacia arriba en montones durante unos días, para que con el calor del sol se acabasen de secar. Si se cortaban las mieses antes de lo debido, se echaban a perder la paja y el grano porque se humedecían y no llegaban a secarse.

En Gipuzkoa y Bizkaia se segaba el trigo con guadaña, principalmente en las zonas más montañosas, y en el resto de Euskadi a hoz. Lo mismo pasaba con la trilla ya en las eras, a donde había sido transportado el trigo de todas las heredades. En el sur de Álava se utilizaba el trillo tirado por bueyes o caballerías que era mucho más económico, mientras que en otros lugares más montañosos se armaban de un instrumento llamado 'irabiurra'. Éste estaba compuesto por dos palos, generalmente de acebo, de cinco pies de longitud, enlazados por uno de sus extremos más delgados, de manera que, agarrando el extremo más grueso de una de las varas, la otra juega libremente para sacudir con violencia los haces, haciendo saltar los granos con los golpes. Este modo de trillar también tenía la pega, como el layado y la escarda, de ocupar muchos brazos.



Irudian, Leintz Gatzagako (Gipuzkoa) segalariak, XX. mendeko lehen urteetan.
En la imagen, segadores de Salinas de Leniz, Gipuzkoa, durante los primeros años del siglo XX.



XIX. mendearen amaiera eta XX.aren hasiera

Finales del siglo XIX principios del XX

XIX. mendearen amaieran, Euskadin labore anitzeko nekazaritza areagotu egiten zen populazioari jaten emateko. Familia bakoitzak bere kontsumorako ogia, olio eta gurina egiten zituen eta artilea edo lihoa ekoizten zituen; gainera, batzuetan, produktu horiek elkar trukatzeko zituzten. Abereak nola-halako arrazakoak ziren eta gaizki elikatuta zeuden, eta batez ere lanerako eta simaurra emateko erabiltzen zituzten. Jaten zuten haragia, funtsean, txerriarena zen, eta abereak gutxitan jekten zituzten. Familia-unitate bakoitzak lursail txikiak zeuzkan, jabetzan edo errentan, eta lurrek oso ezaugarri desberdinak zeuzkaten ereiteko.

Euskal nekazaritza garaikidearen bilakaeran aurrera egiteko eta hobeto ulertzeko, baina, lehenengo, beharrezkoa zaigu lurralde historiko bakoitzeko hiriburua nola zegoen aztertzea, azaletik bada ere. Nekazari Ganberen historian barrena egindako bidaia honen amaieran, XIX. mende bukaerako hiri txiki haiek XXI. mendeko hiri handiak izango dira, baina, nolabait, garai hartako idiosinkrasia gordeko dute. Hiru hiri-gizarte berri eta bereiziotan igartzen diren aldatetako nekazaritzaren geroagoko aldaketak bideratuko dituzte: industriaren sendotzea jarduera ekonomiko nagusi gisa, eta horrekin batera doan urbanizazio-prozesua, eta garraio-sistemaren hobekuntzak, elikagaien hornidura azkartzea eta hobetzea ahalbidetuko dutenak. Horrela, euskal hirietan handitu egingo da eskularen eta nekazaritza-produktuen eskaria, eta horrek berregituratu egingo du nekazaritza tradizionalaren sistema, ordura arte ia guztiz autokontsumorako pentsatuta zegoena (herrietako azoketan saltzen ziren soberakin apurrak salbu).

Al finalizar el siglo XIX en Euskadi existía una agricultura de policultivo, intensificada, que alimentaba a una población en la que cada familia hacía su pan, su aceite o su manteca y producía lana o lino para tejer, intercambiando muchas veces a modo de trueque, estos productos locales. El ganado, de raza mediocre y mal alimentado, servía sobre todo como tracción animal y suministrador de abono. La carne que se consumía básicamente era la del cerdo y el ordeño resultaba secundario. Cada unidad familiar disponía en propiedad o arriendo de pequeños terrenos de muy distintas cualidades para su cultivo.

Pero para avanzar en la evolución de la agricultura contemporánea vasca y comprenderla mejor, es necesario realizar antes un acercamiento a la situación en la que se encontraba la capital de cada Territorio Histórico. Al final de este viaje a través de las Cámaras Agrarias, estas pequeñas ciudades de finales del XIX serán las urbes del siglo XXI, aunque mantendrán de alguna forma la idiosincrasia de entonces. Las transformaciones agrarias posteriores vendrán abocadas por los cambios que ya se adivinan en estas tres nuevas y diferenciadas sociedades urbanas: la consolidación de la industria como actividad económica predominante, con el proceso de urbanización que la acompaña, y las mejoras en los sistemas de transporte que permitirán agilizar y mejorar el abastecimiento de alimentos. De esta manera, las ciudades vascas aumentarán la demanda de mano de obra y de productos agrícolas, hasta el punto de reordenar los sistemas de una agricultura tradicional casi plenamente pensada para el autoconsumo, salvo por los pequeños excedentes que se vendían en los mercados comarcales.



Irudietan, erromeria bat, karta-partida bat eta bolo-jokoko beste bat hainbat herri bizkaitarretan, aurreko mende hasieran.

En las imágenes, una romería, una partida de cartas y una de bolos en diferentes localidades vizcainas a principios del siglo pasado.



Bizkaia, 1887. urtea

Trianoko mendiak: burdina-zain bat dago, 30 kilometro luze eta 2 eta 8 kilometro artean zabal, munduko burdina-ekoizpenaren hamarrena gordetzen du. Funtsezkoa da industria berriaren garapenerako. 1890ean Bizkaitik Ingalaterrarentz batez ere irteten den burdinaren balioa 32 milioi pezetatik gorakoa da. Urte hartan banku bakarra zegoen lurraldean, Bilboko Bankua, eta 5 milioi pezeta zeuzkan gordeta. Horri begiratuta, burdinaren ondorioz sortutako kapital berri eta handiak enpresari bizkaitarrei zer aukera zekarzkien pentsa dezakegu gutxi gorabehera, ordurako euren negozioak ikaragarri hedatzen ari ziren-eta.

1900ean Bizkaiko Labe Garaiak sortu ziren, Euskadiko burdingintzaren elementu nabarmena. Sasoi hartan, Nerbioi itsasadarra bere historian inoiz ez bezala loratzen ari zen enpresa ugariaren sorrerari esker. Aldaketa orotan bezala, garai hartan ere, protagonistak ez ziren jabetzen Euskadiko hurrengo 120 urteotako garapen ekonomikoa bultzatuko zuen sektore industrialaren oinarria eratzen ari zela.



Bizkaia, año 1887

Montes de Triano, una veta de 30 kilómetros de largo y de 2 a 8 kilómetros de ancho concentra la décima parte de la producción mundial de hierro, fundamental para el desarrollo de la nueva industria. El valor del hierro que sale en 1890 de Bizkaia, mayoritariamente a Inglaterra, es superior a los 32 millones de pesetas. En el mismo año existe un único banco en la provincia -el Banco de Bilbao- que disponía en sus arcas de 5 millones de pesetas. Esto da una idea aproximada de las posibilidades del nuevo y gran capital proveniente del hierro para los empresarios vizcaínos, que comienzan a diversificar increíblemente sus negocios.

En 1900 se funda Altos Hornos de Vizcaya, buque insignia de la siderurgia en Euskadi. Son años en los que la ría del Nervión bulle como nunca en su larga historia con la creación de gran número empresas. En estos momentos, como en todo gran cambio, sin que sus protagonistas sean conscientes de ello, se está creando la base de sector industrial que protagonizará el desarrollo económico de los siguientes 120 años de Euskadi.



Burdinaren salmentak ekarritako diru-sarrera izugarriei esker, Bizkaia aurrerapen eta industria-garapenaren erreferente bilakatu zen.
Gracias a los ingentes ingresos por la venta de hierro, Bizkaia se convierte en un referente de progreso y de desarrollo industrial.



Gipuzkoa 1887

1887tik, Donostia turismoaren hiriburua da. Urte hartan bertan Kasino Handia inauguratu zuten, Donostiako udaldien gabezia kronikoa konpontzeko, hau da, jolas- eta jai-jarduerarik eza. Maria Kristina erreginak, udan sarritan etortzen zenak, Miramar jauregia eraikiarazi zuen Kontxako hondartzaren aurrean. Selden Wornum arkitekto ingelesa arduratu zen lanaz, ezaguna baitzen hurbileko Miarritze eta Donibane Lohizune herrietan aristokraziarentzat egin zituen udako egoitzengatik. Gortearen presentzia horrek lehen mailako opor-lekuen artean kokatu zuen Donostia, Niza, Brighton edo Deauville-en pare.

Hiriko alde zaharrean dauden aspaldiko ostatuen ondoan ostalaritzarako eraikin moderno eta luxuzkoak egin zituzten. Horien artean, zalantzarik gabe, Maria Kristina hotela nabarmentzen da. Hotelaren sustatzaileek Victoria Eugenia antzokia eraikiarazi zuten hoteletik hur. 1884an Continental hotela inauguratu zuten, ostalaritzaren goren-gorenekoa.

Gipuzkoa 1887

Donostia-San Sebastián desde 1887 es la capital del turismo. En ese mismo año se inaugura el Gran Casino, llenando así una deficiencia crónica del veraneo donostiarra: la falta de actividades lúdicas y festivas. La reina María Cristina, asidua veraneante, construye el palacio de Miramar enfrente de la playa de La Concha, encargado al arquitecto inglés Selden Wornum, famoso por sus otras residencias veraniegas para la aristocracia en las cercanas localidades francesas de Biarritz y San Juan de Luz. Esta presencia de la corte consolidó a Donostia-San Sebastián como estación vacacional de primer orden, a la altura de Niza, Brighton o Deauville.

Frente a las viejas posadas existentes en el casco histórico de la ciudad se levantan lujosos y modernos edificios para la actividad hotelera. Entre los que, sin lugar a dudas, sobresale el Hotel María Cristina, cuyos promotores construyeron en sus cercanías el Teatro Victoria Eugenia. En 1884, se inauguró aquella joya de la hostelería que fue el Hotel Continental.



Orrialde honetan, hiru umezain zaintzen duten haur banarekin. Ezkerretara, udatartalde bat lasai pasieran, idiek tiratzen duten gurdi baten gainean.

En esta página, tres niñeras posan cada una con el retoño a su cargo. A la izquierda, un grupo de veraneantes pasea tranquilamente en un carro tirado por bueyes.

Araba 1885

Hiruretatik, Araba zen nekazaritzara lotuen zegoen lurraldea argi eta garbi. Kulturalki, loralditik bueltan zetorren, aurreko hogeitau urteetan 'Iparraldeko Atenas' esaten baitzioten, Gasteizko Zientzia, Arte eta Literatura Ateneoa sortu zen garaian hain zuzen ere; Ateneoa Madrilgoaren ondoren Estatu Espainiarrean sortu zen bigarrena izan zen. Ricardo Becerro Bengoa idazlea, Federiko Baraibar arkeologo eta euskararen aztertzailea eta Julian Apraiz edo Antolin Burrieza irakasleak izan ziren bazkide nagusietako batzuk. Nazioartean, bazkiderik ezagunena Manuel Iradier esploratzaile eta afrikanista izan zen.

Arabako eskulana eta merkataritza nahiko mugatuak ziren urte haietan, eta, batez ere, hiritik landa-ingurunea hornitzera bideratuta zeuden. Hiria, Gasteiz, barnealdekoa zen eta ez zegoen oso modernizatuta; bertan, langile-klaseak tailerretan eta lantegi txikietan ziharduen eta ez zen oso garrantzitsua ez kopuruari zegokionez -2.500 bat lagun XX. mendearen hasieran- ezta bereizitako taldea izateagatik ere.

Álava 1885

Álava se caracteriza por ser, de las tres, la provincia claramente más agraria. Culturalmente regresa de un momento de esplendor cercano, que la llevó a ser identificada en los veinte años anteriores como la 'Atenas del Norte', precisamente cuando se funda el Ateneo Científico, Artístico y Literario de Vitoria, el segundo que se constituyó en el Estado después del de Madrid. Entre sus socios principales se encontraban el escritor Ricardo Becerro de Bengoa, el arqueólogo y estudioso del euskera Federico Baraibar y los profesores Julián de Apraiz o Antolín Burrieza. Como socio más conocido internacionalmente destacó el explorador y africanista Manuel Iradier.

La manufactura y el comercio alavés resultan en estos años de limitadas dimensiones y se dirigen tradicionalmente a abastecer desde la ciudad a su entorno rural. Con una ciudad, Vitoria, de interior, escasamente modernizada, donde la clase obrera empleada en talleres y pequeñas fábricas no es trascendental ni por el número -unas 2.500 al comenzar el s.XX- ni por constituir un grupo diferenciado.



‘Nekazaritza berria’

‘La nueva agricultura’

Bizkaiko industrian edo Gipuzkoako turismoan XIX. mendearen amaieran nabari den iraultza ez da hain argi antzematen euskal landa-munduan, baserriak ekoizpen-modu tradizionaletara lotuta baitaude, burujabetza helburu. Aurreko urteetan, aldaketa bik baino ez zuten iragarri ‘nekazaritza berriaren’ etorrera: batetik, Ameriketatik artoa eta bestelako produktuak, patata adibidez, sartzea, eta bestetik, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak lehen sektorea modernizatzeko egin zituen proposamenak.

Duela laurehun urte baino gutxiago artoa Euskadira iritsi zenetik nekazaritza ez zen berdina izan. Gonzalo Percaiztegi hernaniarrak ekarri zuen Ameriketatik, eta aldaketa eragin zuen gure lurreko laborantza-prozeduretan, kostaldean batik bat. Ondorioz, laboreen errotazioa lortu zen eta laborantzarako lurra hedatu ziren. Halako neurriei esker bizi-kalitateak hobera egin zuen zalantzarik gabe.

Geroago, euskal nekazariak, gehienak kolono errentariak edo jabe txikiak, egoera latzei aurre egin behar izan zieten XIX. mendearen lehen erdialdean. Feudalismoaren arrasto berantiar astunak gainditzeko lagungarria izan zen garia alde batera uztea eta nekazaritza-sistema intentsiboagoaren alde egitea, laboreen errotazioan oinarritua artoa leguminosoekin eta bazka-landareekin txandakatuz, eta nekazaritza eta abeltzaintza bateratzea.


La revolución que se adivina en la industria vizcaína o el turismo gipuzkoano a finales del siglo XIX, principios del XX, es más difícil de rastrear dentro del mundo rural vasco, donde los caseríos siguen anclados a métodos de producción tradicionales en aras de la autosuficiencia. Durante los siglos anteriores, los únicos cambios que podían anticipar la llegada de ‘la nueva agricultura’ fueron la introducción desde el continente americano del maíz y otros cultivos como la patata y las medidas ilustradas propuestas por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País para modernizar el sector primario.

Con la llegada del maíz a Euskadi hace menos de cuatrocientos años, la agricultura ya no volvió a ser la misma. Fue traído desde América por Gonzalo Percaiztegui, natural de Hernani, y su llegada supuso un cambio en los procedimientos de cultivos en tierras vascas, sobre todo en la costa. Así se consiguió una rotación de cultivos y se ampliaron las tierras cultivables, medidas con las que indudablemente se mejoró la calidad de vida.

Posteriormente, el campesinado vasco, formado mayoritariamente por colonos arrendatarios y pequeños propietarios, pasó por situaciones difíciles en la primera mitad del siglo XIX. Le ayudaron a superar ciertos lastres tardo feudales el abandonar el trigo y apostar por un sistema agrícola más intensivo, en base a una rotación de cultivos que alternaba el maíz con leguminosas y plantas forrajeras, y conciliar agricultura y ganadería.



Argazki bietan, bi arto-soro zarbatsu: duela 400 urte baino gutxiago Amerikatik heldu zenetik, oinarrizko laborea izan da Euskadin.
En ambas fotografías, dos frondosos campos de maíz: cultivo fundamental en Euskadi desde su llegada de América hace menos de 400 años.



Artoaren laborantzak erabat aldatu zuen lurra. Lehenagoko alferreko lursailak luberritu zituzten, baso-hedadura handiak artasoro bihurtu zituzten, bailarak eta bokaleak garbitu eta ibar alubial emankor eta zoragarri bilakatu zituzten. Artoak beste labore batzuk alboratu zituen, hala nola, oloa, garagarra eta artatxikia. Hain zuzen ere, azken horretatik hartu zuen izena euskaraz: artoa.


Uzta azkarrago lortzen zenez urte berean labore desberdinak txandakatu zitezkeen. Gainera, artoak, landare berdea ematen zuen behientzat, hosto lehorrak lastairak egiteko eta, batez ere, ogi osasungarri eta mamitsua, elikadura baliabiderik nagusia izango zena. Arto-irina mehe eho, oratu eta errez gero taloak egiten ziren, eta masa horrekin berarekin morokila egiten zen, substantzia handiko elikagaia, alegia.

El cultivo del maíz transformó por completo el suelo. Se roturaron nuevos terrenos antes baldíos, se convirtieron grandes extensiones de bosques en campos de maíz, se sanearon los valles y las desembocaduras de los ríos convirtiéndolos en ricas y espléndidas vegas aluviales. El maíz desterró otros cultivos como el de la avena, la cebada y el mijo. De este último adquirió hasta su propio nombre en euskera, 'artua'.

Conseguir una cosecha más rápida permitió rotar distintos cultivos en el mismo año. Además, el maíz proporcionaba planta en verde para el ganado vacuno, hoja seca para fabricar jergones y, sobre todo, un pan sano y sustancioso que constituyó en el principal medio de alimentación. Con su harina tenuemente molida, amasada y tostada se elaboraban los tradicionales talos y con esta misma masa se hacían los sustanciosos morokiles.


Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen aburuz, irakaskuntza praktikoa zen. Nekazaritzari buruzko ezagutzarik eza, sektorea europar herrialdeen aldean atzeratuta egotearen eragile nagusietako bat zela uste zuten.

La Real Sociedad Bascongada de Amigos del País consideraba la falta de conocimientos agrónomos como una de las principales causas del atraso del sector con respecto a otros países europeos.



Testuinguru horretan, 1763an, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte sortu zen, "Azkoitiko zalduntxoak" izeneko taldeak osatua. Zientzien, artearen, letren, industriaren, nekazaritzaren, merkataritzaren eta politikaren garapena sustatzea zuten helburu. 'Irurac bat' zen euren leloa, Euskadi osatzen duten hiru lurraldeei erreferentzia eginez. Elkarteko kideek jesuita frantsesen eskoletan ikasi zuten batik bat, eta hantxe izan zuten Ilustrazioko edo Argien Mendeko kultur mugimenduaren berri. Besteak beste Frantzian, Alemanian, Ingalaterran, Belgikan edo Suitzan erabilitako nekazaritza-teknologiak zabaltzeko eta erakusteko esperientziak abiarazten saiatu ziren. Nekazaritzaren irakaspenera praktikoa bidez euskal nekazaritzaren eta abeltzaintzaren berrikuntza bultzatu nahi zuten. Euren ustez, nekazaritzako ezagutzarik ez izatea zen Europako beste herrietako nekazaritzarekiko atzerapenaren arrazoi nagusietakoa. Horrela, Elkarteari esker, teknika berriak sartu ziren, ustiapen bakoitzaren kokapen geografikoaren arabera espezializazioa heldu zen, bertako genetika hobetzeko

Es en este contexto cuando, en 1763, nace La Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, formada por un grupo conocido como 'Caballeritos de Azcoitia' cuyo fin es promover el desarrollo de las ciencias, el arte, las letras, la industria, la agricultura, el comercio, y la política. Su lema es 'Irurac bat.',- 'Las tres una.',- en referencia a las tres provincias que componen Euskadi. Sus integrantes fueron educados principalmente en colegios de Jesuitas franceses y allí conocieron el movimiento cultural de La Ilustración o El Siglo de las Luces. Trataron de poner en práctica las experiencias de propagación y divulgación de tecnologías agrarias llevadas a cabo en países como Francia, Alemania, Inglaterra, Bélgica o Suiza. Tenían la idea de servirse de la enseñanza práctica agrícola como trampolín para la renovación de la agricultura y ganadería vascas. Consideraban que la falta de conocimientos agrónomos era una de las principales causas del atraso del sector con respecto a otros países europeos. De esta forma, gracias a esta Sociedad se asiste a la intro-



Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek, industria, merkataritza, arkitektura, medikuntza eta, bereziki, nekazaritza modernizatzerazuzendutako ekimenak, erreformak eta teknikarikaurreratuak ezarri zituen.

La Real Sociedad Bascongada introdujo iniciativas, reformas y las más avanzadas técnicas encaminadas a modernizar la industria, comercio, arquitectura, medicina, arquitectura y, sobre todo, la agricultura.

abere-arrazak sartu zituzten, eta erregimen zaharrarekin inolako zerikusirik ez zuten ekoizpen-estrategiak abiarazi zituzten.


